

HEZKUNTZA IKERKUNTZAREN IKUSMOLDE METODOLOGIKOAK ETA IKERKETA-MOTAK

- 1.-Hezkuntza Ikerkuntzaren paradigmak.
 - 1.1.- Paradigma positibista
 - 1.2.- Paradigma interpretatzailea
 - 1.3.- Paradigma kritikoa
- 2.-Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboaren ezaugarriak
 - 2.1.- Maila metodologiko eta teknikoak
 - 2.2.- Kuantitatibismo eta kualitatibismoaren arteko eztabaida
- 3.-Ikerkuntza-motak: sailkapenak irizpide desberdinen arabera.
- 4.-Ikerkuntza-metodoak:
 - 4.1.- Metodo historikoa
 - 4.2.- Metodo deskribatzailea
 - 4.3.- Korrelaziozko metodoa
 - 4.4.- Metodo esperimentala
 - 4.5.- Metodo etnografikoa
 - 4.6.- Ebaluazio-Ikerkuntza
 - 4.7.- Ikerkuntza-Ekintza

1.- Hezkuntza ikerkuntzaren paradigmak

Momentu zehatz batean, komunitate zientifikoak, arazoak enfokatzeko duen adierazpen modua. Mundu sozialari buruzko erakarketa intererlazioatuen multzo bat da eta mundu sozialaren azterketa antolatua aurrera eramateko marko filosofiko eta kontzeptuala eskeaintzen du". (Khun, 1962)

"Komunitate zientifiko bateko kideek hezkuntza prozesuak ikusi, analizatu eta interpretatzeko duten modua, kontutan izanik, hauek, balore, postulatu, arau, sinismen eta hezkuntza prozesuak sumatzeko eta ulertzeko ereduak konpartitzen dutela".

"Munduaren ikuspegi bat, perspektiba orokor bat, mundu errealaaren konplexutasuna xehatzeko modu bat". (Patton, 1978).

"Zientifikoaren komunitate batek onartzen dituen metodo, arazo eta arauen iturria askabide gisa". (Pérez Serrano).

Paradigmen ezaugarriak:

- **Ez dira betirako.** Une historiko bati lotuak daude.
- Zientzilari-komunitatearen **onarpenera** behar da.
- Paradigma bakoitzaren barruan **jarrera teoriko desberdinak** daude.
- Gaur egun **hiru paradigma desberdinak** onartzen dira.
- Gaur egun paradigmen arteko **elkarbizitzeko joera dago.**

- **PARADIGMA POSITIBISTA:** Natur Zientzietako metodo zientifikoaren aplikazioan oinarrituta. Bere asmoa hezkuntza gertakarien esplikazio kausala da.
- **PARADIGMA INTERPRETATZAILEA:** Bere helburua, hezkuntza eszenatokian parte hartzen duten lagunen esanahi eta intentziotan oinarrituz, hezkuntza gertakarien ulermena eta interpretazioa da.
- **PARADIGMA KRITIKOA:** Bere asmoak, gertakarien ulermen soila gainditzen du, soluzioak bilatuz errealitatea eraldatuz, hezkuntza praktikaren etengabeko hausnarketa erabiliz horretarako.

Paradigma Positibista

1. Natur Zientzietan erabilitako ereduak
2. **Behaketa eta esperientzia** ditu zutabeak
3. Ezagupen sistematikoa, frogagarria, konparagarria, neurgarria eta errepikarria bilatzen da
4. **Metodo hipotetiko-deduktiboa**
 1. Hipotesiak
 2. Datuen bilketa objektiboa
 3. Datuen tratamendu estatistikoa
5. Ezagupena zabaltzea
6. Errealitatea **behatu, neurtu eta kuantifikatu**
7. Frogagarria ez denean ez da kontutan hartzen
8. Subjektuen egoera subjektiboak ez dira kontutan hartzen
9. **Errealitateak zatigarriak dira**
10. Teoriak osatzea, orokortasunak bilatzen dira

Paradigma Interpretatzailea

1. Errealitate kontestualizatuaren **ulermena** bilatzen da.
2. **Ez aldagaiak** baizik eta **azterketa holistikoa**
3. Praktikaren eta praktikatik egindako hausnarketa
4. Praktikoen partaidetza sustatzen da
5. Garrantzi gehiago dauka ulermenak, egiaztapenak baino
6. Teorien izaera berezia azpimarratzen da
7. **Deskripzio aberatsagoak**
8. Metodologia kualitatiboa azterketa sakonagoak egiteko
9. **Arauetatik ateratzen direnak** interesatzen dira
10. Justifikaziorako logika diferentea

Paradigma Kritikoa


1. Errealitate aldakorra
2. **Interes praktiko eta emantzipatzailea**
3. Aldaketa soziala errazten saiatzen da
4. **Prozesu demokratikoa**
5. Praktikatik abiatzen da
6. **Praktikaren hobekuntzarako**
7. **Ikertzailea eta ikergaia bat:** eztabaida eta hausnarketa partehartzailea

Gizarte Zientzietako Ikerkuntzako Paradigmak

	Positibista	Interpretatzailea	Kritikoa
Beste izenak	Kuantitatiboa Empiriko-analitikoa Arrazionalista	Kualitatiboa Naturalista Humanista	Soziokritikoa
Sorrera	Natur Zientziak	Soziologia	Marxismoa
Errealitatearen izaera	Bakarra Objektiboa Zatigarria	Anitza Subjektiboa Holistikoa	Holistikoa Dinamikoa Subjektiboa Elkarreraginekoa Anitza
Zientzia eta ikerkuntzaren helburuak	Azaldu Kontrolatu Egiaztatu Aurrean	Deskribatu Ulertu Aurkitu Hipotesiak sortu Interpretatu	Askatu Kritikatu Aldaketak
Ezagutza-motak	Teorikoa Lege nomotetikoak	Praktikoa Azalpen idio-trafikoak	Emantzipatzailea
Baloreen rola ikerkuntzan	Neutraltasuna Baloreetatik aske	Baloreak kontutan hartu behar	Ideologia eta balorek integratuak ezagutzan
Hezkuntzaren teoria eta praktika	Banatuak	Praktikan batu egin daitezke	Banezinak dira
Ikertzailea/ikergaiaren arteko erlazioa	Independenteak	Bien arteko elkarreraginak	Erabatekoa

2.- Metodologia kuantitatibo eta kualitatiboaren ezaugarriak

2.1.- Maila metodologikoa eta teknikoa



Ikerkuntzako metodologiaren ezaugarriak		
	Kuantitatiboa	Kualitatiboa
Ezaugarri orokorrak	Egiaztagarria, inferentziala eta hipotetiko-deduktiboa Neurketa kontrolatua Datuetatik urrun Emaitzetara bideratua Orokorgarria	Arakatzalea, deskribatzailea eta induktiboa Kontrolarik gabeko behaketa Datuetatik hurbil Prozesuetara bideratua Ez orokorgarria
Ikerkuntza arazoak	Teorikoak	Bizitza eta errealitatearen pertzepzio, sententzia eta beharrak
Diseinua	Aldez aurretik eta kanpotik erabat finkatua	Irekia eta malgua
Subjektuak	Estatistikako jardunbideak erabiliz	Subjektuen interes eta beharren arabera zehazten da
Datu-bilketarako teknikak	Tresna baliodun eta fidagarriak: testak, proba objektiboak, behaketa sistematikoak, ...	Teknika kualitatiboak: behaketa kualitatiboa, elkarrizketa klinikoak, ...
Datuen azterketa Interpretazioa	Estatistika teknikak	Murrizketak, kategorizazioak, azalpenak, triangeluketa
Konklusioak	Azaleko deskribapenak eta azalpenak. Aurresateak, legeak.	Deskribapen sakonak, hipotesiak, erabakiak, balorazioak, ...
Kalitatea irizpideak	Barne eta kanpo baliotasuna Fidagarritasuna Objektibotasuna	Sinesgarritasuna Transferigarritasuna Mendekotasuna Berresgarritasuna

2.2.- Kuantitatibismo eta kualitatibismoaren arteko eztabaida

- **Joerak**
 - Metodo baten aldekoen joera
 - Bi metodoen konbinaketaren aldekoak: integrazioa
- **Elkarrekiko kritikak**
 - Kuantitatibismoari
 - Mekaniko eta erredukzionista
 - Indibidualtasuna eta baloreak ez ditu kontutan hartzen
 - Kualitatibismoari
 - Egiaztatze prozedura zientifikoak baztertu
 - Ikertzaileen baloreen gainkarga
 - Ezin errepikatu
 - Fidagarritasun gutxi
 - Kanpo baliotasun gutxi

Integraziozko Oinarriko Estrategiak

	A metodoa	B metodoa
Osaketa		
Konbinazioa		
Triangelaketa		

3.- Ikerkuntza-motak: sailkapenak irizpide desberdinen arabera

- **Abstrakzio-maila**
 - Ikerkuntza-soila
 - Ikerkuntza aplikatua
- **Dimentsio kronologikoa**
 - Ikerkuntza historikoa
 - Ikerkuntza deskribatzailea
 - Ikerkuntza esperimentalta
- **Burutzeko unea**
 - Zeharkako ikerketak
 - Luzerako ikerketak
- **Datuen iturria**
 - Ikerketa bibliografikoa
 - Ikerketa metodologikoa
 - Ikerketa enpirikoa
- **Tokia**
 - Laborategi-ikerketa
 - Landa-ikerketa
- **Prozesu formala**
 - Metodo deduktiboa
 - Metodo induktiboa
 - Metodo hipotetiko-deduktiboa

4.- Ikerkuntza-metodoak hezkuntzan

4.1.- Metodo historikoa

- Ikertzaileak iragana deskribatu eta interpretatzen du, gehienetan metodologia kualitatiboa erabiliz.
- **Aldaerak**
 - Ikerketa historiko bera (*hezitzaileak, mugimendua, instituzioak, ...*)
 - Lege-ikerketa (*legedia, erabaki juridikoak, ...*)
 - Ikerketa politikoa (*berrikuntzak, garapena, hezkuntza-politika, ...*)
- Datuen iturriak dokumentuak dira
- **Prozesua:**
 - Azterketa-arloaren identifikazioa, helburuak, galderak, hipotesiak, ...
 - Datuen bilketa, antolaketa, hautaketa, egiaztapena, analisisa, ...
 - Konklusioen formulazioa
- **Adibideak:**
 - Ikastolen mugimenduaren sorrera Euskal Herrian.
 - Gizarte zerbitzuen egoera 80garren hamarkadan.

4.2.- Metodo deskribatzailea

- Helburua: era **objektibo** batez, populazio baten jarduera edo ezaugarriak eta gertakarien **deskribapena**.
- Zertarako diren **egokiak:**
 - Informazio zehatza jasotzeko
 - Arazoak identifikatzeko
 - Hipotesiak aurkitzeko
 - Subjektuen garapena ikusteko
 -
- **Metodologia orokorra**
 - ikerkuntza-arazoa formulatu
 - diseinua
 - datuak bildu
 - datuak analizatu
 - emaitzak interpretatu eta txostena
- Ikerketa deskribatzaile-**motak:**
 - Inkesta motako azterlanak
 - Behaketazko azterlanak
 - Garapen-azterlanak
 - Azterlan analitikoak

4.2.- Metodo deskribatzailea

4.2.1.- Inkesta motako azterlanak

- Helburua: Subjektuen jokabideak aztertu, aldagai pedagogiko, psikologiko eta soziologikoen banaketa eta maiztasunak aurkitzeko asmoz eta ahal den neurrian emaitzak orokortzeko.
- Datuak biltzeko teknikak: galdera-sorta, elkarrizketa egituratuak, jarrera-eskalak.
- Adibidea: Psikopedagogian matrikulatzen diren ikasleen ezaugarriak determinatu.

4.2.- Metodo deskribatzailea

4.2.2.- Behaketazko azterlanak

- Helburua: subjektu eta giroei buruzko jokabide eta elkarrekintzei buruzko **informazioa zuzenean** lortzea, horretarako **behaketa zientifikoa** erabiliz.
- Behaketa zientifikoaren **ezaugarriak**:
 - **Nahitakoa** (ez bapatekoa)
 - **Egituratua** (teoria, hipotesiei erantzun)
 - **Kontrolatua** (egiaztagarria, teknika objektiboak)
- Behaketa-tresnak:
 - Erregistroa
 - Ikurren sistema
 - Kategorien sistema
 - Estimazio-eskalak
- Adibidea: ikasleen artean ematen den komunikazioaren azterketa.

4.2.- Metodo deskribatzailea

4.2.3.- Garapen-azterlanak

- Helburua: denbora-epe jakin batean, aldagaien eboluzioa deskribatu
- Modalitateak:
 - Luzerako azterlanak
 - Zeharkako azterlanak
- Adibidea: Lehen hezkuntzako haurren marrazketaren eboluzioan ematen diren aldien deskribapena.

4.2.4.- Azterlan analitikoak

- Helburua: testuinguru, subjektu edo materialen azterketa zehatza eta sakona.
- Aplikapenak
 - Datu-multzoen azterketak tipologiak egiteko
 - Datuak biltzeko tresnen eraketa
 - Diskurtsoen analisia
- Adibidea: Testuliburuetan azaltzen diren baloreen azterketa.

4.3.- Korrelaziozko metodoa

- Helburua: Gertakizun edo egoera batetan parte hartzen duten **aldagaien arteko erlazio aztertzea**. Ikerketa hauetan ez de aldagai askearen maneiatzea ematen.
- Zertarako diren egokiak:
 - **Aldagaien arteko erlazioaren magnitudea** jakiteko
 - **Talde desberdinak zein aldagaietan bereizten diren** jakiteko
 - Zenbait aldagaien auresatearen maila aurkitzeko
- **Metodologia:**
 - Arazoa planteatu
 - Hipotesiak formulatu
 - Diseinua
 - Datuen bilketa (testak, eskalak)
 - Analisiak (analisi faktorialak, korrelazioak, erregresioak)
 - Interpretazioa
 - Ondorioak

4.3.- Korrelaziozko metodoa

- **Modalitateak:**
 - Erlazio-azterlanak edo korrelaziozkoak
 - Azterlan auresaleak
 - Azterketa faktorialak
 - Alderaketa-kausazko azterlanak
 -
- **Adibideak:**
 - Nortasunezko ezaugarri desberdinen arabera, irakaslearekiko ikasleen jokabideak aldatzen direla egiaztatzea.
 - Delinkuentzia eta gizarte-klasearen arteko erlazioaren azterketa

4.4.- Metodo esperimental

- Helburua: metodo esperimental erabiliz, kausalitate erlazioak aztertzea da, gertaerak kontrolatzeko asmoarekin.
- **Metodologia:**
 - arazoarekin erlazioatutako literaturaren azterketa
 - ikerkuntza-arazoaren identifikazioa eta definizioa.
 - hipotesiaren formulazioa.
 - esperimentuzko plan baten eraiketa: aldagai ez esperimentalen identifikazioa eta kontrolerako teknikak, baliotasunaren berma, **diseinuaren** hautaketa, lagingaren hautaketa, taldeen eraketa eta subjektuen asignazioa, neurgailuak hautaketa-eraiketa, azterlan-pilotoa?, esperimentua eta datuen-bilketa planifikatu, ...
 - esperimentua gauzatu eta datuak bildu
 - datuen analisi estatistikoa eta emaitzen interpretazioa
 - ondorioak ateratu eta txostena idatzi.
- **Diseinu-motak:**
 - Subjektu (talde) arteko, subjektu (talde) barruko, mistoak
 - Faktore batekoak, faktore biko, ...
 - Aleatorioa, blokeena, parekatzeena, ...

4.4.- Metodo esperimentalak

- Kontrol mailaren araberako sailkapena
 - Aurreesperimentalak
 - talde bakar baten diseinua aurre-testik gabe,
 - talde bakar baten diseinua aurre-test eta ondo-testarekin,
 - talde estatiko batekiko erkaketa, ...
 - Kuasiesperimentalak
 - Kontrol taldeen ez balioakideen diseinua
 - Denborazko segiden diseinua
 - Benetako esperimentalak
 - Bi taldeen diseinua:
 - Talde anitzeko diseinua
 - Diseinu faktorialak
 - Subjektu bakarreko diseinua
- Esperimentu-motak:
 - Laborategi-esperimentuak
 - Landa-esperimentuak

4.5.- Metodo etnografikoa

- Sorrera antropologian dago (XIX mendearen bukaeran)
- Etnografia = bizimodu, arraza edo gizabanako talde batean ematen diren gertakizunen deskripzioa, giza-egitura, subjektuen jokaerak, interpretazioak eta abarretan erreparatuz, baina ez ikertzailearen ikuspuntutik soilik.
- Hezkuntzako etnografia: eskolako testuinguruan ematen diren hezkuntza-gertakizunen deskripzioa, azalpena eta interpretapena da, inplikaturik dauden ikuspegietatik.
- Helburua: eskolako hezkuntzako eszenategien partehartzaileen sinismena, ekintzari buruzko deskripzioak egin, ..., nolabaiteko diagnosis egiteko.

4.5.- Metodo etnografikoa

- Ezaugarriak:
 - Holista
 - Naturalista
 - Induktiboa
 - Ikertzailearen inplikazio zabala
 - Interpretazioa bilatzen da ez esplikazioa
 - Partaideen ikuspegia garrantzitsua da
 -
- Ikerkuntza etnografikoaren faseak:
 - Arazoaren planteamendua eta taldeen hautaketa
 - Eszenategietarako sarbidea
 - Informatzaile giltzarrien hautaketa
 - Datuak biltzeko teknikak erabaki: behaketa eta elkarrizketa, landa-oharrak, egunkaria, idatzitako materialen azterketa..
 - Datuen bilketa, azterketa eta interpretazioa
 - Txosten fenomenologikoa: subjektuak bere sentimendu, emozio, balore eta abarri buruz egiten duen deskripzioa.
- Adibidea:
 - Eskolako eskaeren aurrean, ikasleen jarreraren azterketa. Nola jasaten, erreakzionatzen duten, ...
 - Berrikuntza teknologikoaren inpaktua eskolan

4.6.- Ebaluazio-Ikerkuntza

- Irizpide konkretu batzuen arabera, edozein motako programen baliozkotasuna (helburuak bete diren ala ez) determinatzen saiatzen da
- Zer ebaluatzen da? Irakasteko metodoak, materialak, gizarte-programak
- Oinarritzko kontzeptuak:
 - **Ebaluaketa:** informazioa esanguratsua lortzeko eta aztertzeko prozesua, ondoren objektua, gertaera edo gertakizun bati buruzko baliozko epaiak egiteko.
 - **Programa:** helburu konkretu batzuetara iristeko izaera sistematikoko ekintza multzoak.
 - **Programen ebaluaketa:** hezkuntzako programari buruzko erabakiak hartzeko informazio fidagarria eta baliozkoaren bilketa eta azterketaren prozesu sistematikoa. Prozesu hau, zuhurra, kontrolatua eta sistematikoa den neurrian. **Ebaluazio-Ikerkuntza aurrean gaude.**
- Prozesua
 - Beharren planteamendua
 - Helburuak definitu: baloratu, erabakiak hartu, ardurak eskatu, ...
 - Ebaluazioa diseinatu
 - Datu bilketa: behaketa, entrebista, galdeketak, inkestak, dokumentuak, testak, ...
 - Azterketa kuantitatibo eta kualitatiboak
 - Balorazioa: epaiak, erabakiak, erabakiak gauzatzeko bideak, ...

4.7.- Ikerkuntza-Ekintza

- Beste izenak edo aldaerak: ikerkuntza-gelan, irakasle ikertzailea, ikerkuntza kolaboratzailea, ikerkuntza esku-hartzailea, ...
- Zer da? Hezkuntzako praktika hobetzeko egiten den azterketa sistematikoa. Hobekuntza hori subjektu-taldeengandik eman behar da, beren ekintza praktikoa eta ekintza horien eraginei buruzko gogoetaren bidez.
- Helburuak: arazoak konpondu, etengabeko formakuntza, ikuspegi edo berrikuntza berrien txertaketa hezkuntzan, ...
- Ikerkuntza-arazoak, taldetik sortzen dira eta partaide guztiek parte hartzen dute prozesuaren fase guztietan.
- Ikertzaileak, esku-hartzaile konprometituen rola hartzen du.

4.7.- Ikerkuntza-Ekintza

- Ikerkuntza-prozesua:
 - Hasierako egoeraren diagnostikoa eta aitortpena
 - Ekintza-egitasmo baten garapena, kritikoki informatua, jada gertatzen ari dena hobetzeko.
 - Egitasmoa praktikan jartzeko iharduna.
 - Jarduera edo ekintzaren eraginari buruzko behaketa eta informazioaren bilketa: elkarrizketa sakona, ez-egituratutako behaketa, landa-egunkaria, autoinformeak, pasadizozko erregistroak, bizitza historiak, ...
 - Egitasmo berria eta ondoko ekintzari begiratuz, ondorioen inguruko gogoeta.
- Aplikapenak:
 - Erkidegozko mugimenduak: talde marjinauak, prebentzio-programak, alfabetizazio-programak, ...
 - Helduen heziketa
 - Lanbidezko hobekuntza
 - Erakunde eta enpresen ebaluazioa
- Motak:
 - Ikerkuntza parte-hartzailea
 - Ikerkuntza kolaboratzailea
